

1. Pentsatu matematika-eskoletan ezagutu duzun pertsonaia bat; berdin du Kriketarretako bat den, Bmathetako bat edo Samen bidaiako kide bat.



2. Idatz iezaiozu mezu bat (eskuz idatzia izan daiteke, baina baita mezu elektroniko bat ere), eta gehitu hauetakoren bat gutxienez:

Mezua pertsonaia horri idazteko arrazoiaren azalpena, aukera guztien artean. Egin nahi diozun galdera pertsonalen bat. Udako oporretan zehar egin duzun asmakuntza matematikoren bat edo ikasi duzun eta gustatu zaizun zerbait (udako erronkei esker, adibidez). Interesgarria iruditzen zaizun eta, beraz, datorren ikasturtean sakonago ikertu nahi duzun alderdi matematikoren bat.



3. Bidal iezaguzu zure mezua posta elektronikoz info@innovamat.com helbidera edo sare sozialen bidez, eta hartzaileari helaraziko diogu.

Zer behar dugu?

- Papera eta arkatza

Zer landu nahi dugu?

- Nork bere burua hobeto ezagutzea eta egindako ikasketez hausnartzea.
- Ideiak antolatzea eta hausnarketak idatziz adieraztea.
- Nork bere buruari galderak egitea.

Partekatu zure mezua gurekin sare sozialetan traol-hitz hau erabiliz: **#InnovamatSummer!** Kontuan izan udako azken erronka dela hau. Espero dugu erronkei etekina atera izana, eta gozatu uda matematikoko azken egunez! Datorren ikasturtera arte!